# LANGABEZIA ERREGISTRATUA

## Abuztuan %2,1 murriztu da erregistratutako langabezia

Abuztuan 106.848 langabe erregistratu ziren Euskadin, hau da, uztailarekiko %1,1eko igoera, urtarokotasuna dela eta ohiko bilakaera . Urte arteko datuei dagokienez, ordea, langabeziak behera egin zuen berriro, ekainean eta uztailean izandako gorakaden ondorioz, eta 2025eko abuztuan izandako langabeziaren %2,1 azpitik geratu zen. Kopuru absolutuetan, 2.321 langabe gutxiago daude. Sexuaren araberako bilakaera ere nabarmentzekoa da. Ekainean eta uztailean gizon langabe kopuruak baino hazkunde handiagoa izan ondoren, emakume langabeen kopuruak urte arteko %2,6 egin zuen behera abuztuan, eta gizonenak, berriz, %1,4.

### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA.
ABUZTUA

-%2,1




### LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## Langabezia. Gazteak

Urte arteko aldakuntza tasa




## Langabezia. Atzerritarrak

Urte arteko aldakuntza tasa




Sektoreka, langabeziak oro har behera egin zuen, batez ere zerbitzuetan, non %5,1 murriztu baitzen 2025eko abuztuarekin alderatuta. Aurretik lan-esperientzia izan duten langabeen kopuruak ere urte arteko %4,7ko beherakada izan du. Aitzitik, aurreko enplegurik gabekoen eta atzerritarren langabeziak gora egin du nabarmen. Bilakaera horrek lan egiteko baimena berriki lortu duten atzerritarrak lan-merkatuan sartu direla adieraz lezake. Halaber, langabeziak behera egin zuen 25 urtetik gorakoen artean, baina gora egin zuen adin horretatik beherakoen artean.

### Langabeak

| | 2025eko abuztua | 2026ko abuztua | Aldakuntza |
|---|---|---|---|
| **LANGABEAK GUZTIRA** | **109.169** | **106.848** | **-2.321** |
| LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA | | | |
| Araba | 18.398 | 17.894 | **-504** |
| Bizkaia | 61.417 | 60.463 | **-954** |
| Gipuzkoa | 29.354 | 28.491 | **-863** |
| SEXU ETA ADINAREN ARABERA | | | |
| Gizonak | 45.327 | 44.684 | **-643** |
| Emakumeak | 63.842 | 62.164 | **-1.678** |
| 25 urtetik beherakoak | 8.620 | 9.146 | **526** |
| 25 urte baino gehiago dutenak | 100.549 | 97.702 | **-2.847** |
| EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA | | | |
| Lehen arloa | 1.768 | 1.697 | **-71** |
| Industria | 10.563 | 10.254 | **-309** |
| Eraikuntza | 5.478 | 5.357 | **-121** |
| Zerbitzuak | 77.791 | 73.842 | **-3.949** |
| Lehenago lan egin dutenak | 95.600 | 91.150 | **-4.450** |
| Lehenago lan egin ez dutenak | 13.569 | 15.698 | **2.129** |
| ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK | | | |
| Langabe atzerritarrak | 19.435 | 22.381 | **2.946** |

Iturria: SEPE.